

KOSTUEN EGITURA

Gure produktuak behar sozial bat asetu nahian, kostuak murrizten saiatuko gara eta gure produktuak arrakasta lortzeko asmoarekin, merkatua segmentatuko genuke, gazteengana joz. Hala ere, basoa edozein pertsonari eskainia egon daiteke ere, eta denek eskuratu ahal izatea da gure nahi nagusia; horrexegatik ere, estatuak zein gizarteak eskaintzen dituen laguntzez baliatuko gara.

- Kostu finkoak, oraingoak, web-gunea mantentzea, lokala eta kimikarien zenbait premia (ez baitira soldatapekoak izango) izango lirateke. Premia hauek ordaintzeko, gainera, lehenago estatuak eskaintako laguntzez baliatuko ginateke. Anoetan ezarritako lokal merkearen argi-indarra, zein ura ere kontuan hartu beharko genituzke.
- Kostu aldakorak, berriz, produktua ekoizteko lehengaiak eta garraioan inbertitutako dirua lirateke. Hauek salmenta-bolumenaren arabera lirateke, beraz zenbat eta gehiago saldu orduan eta gehiago beharko genituzke.



